

**ERRETORIKA KLASIKOAREN ERAGINA AXULARREN
AIPAMENEN ITZULPENETAN**

1976-V-28

J.A. Letamendia

Axularren berezitasuna itzul lanetan bi dohainetara bildu ohi dute gure kritikariek: aipamenaren mamia hondarreraino xurgatuz ederki omen daki moldatzen batetik euskararen iza-teari, eta bestetik irakurleen adimenari, sarri itzulpenaz baino areago glosaz edo perfrasiar hitz egin behar genukeelarik.

Hala ere Salamancan eskolatu eta gero Saran predikari genuenaren erretorika zaletasuna ezin ahazturik itzulpena desbideratzen duen hirugarren testuinguru bat ikutu nahi nuke gaur hemen, baldin lehen testu ingurutzat irakurlegoaren kultur maila eta bigarren bezala gaiaren haria hartzea zilegi baldin bazait.

Erretorikazko gogo honi jarraikiz aldakuntzak salatzen ditugu itzulkizunen harreman logikoetan, baita isilguneak eta eraskinak ere Leizarragak bere translazionetan ez bezala, ez baitigu Sarakoak hain hertsiki hartzen harako "nola Iainkoaren manu expresa den haren hitzari deus edeki eztakion ez eratzeki" hura. Bereziki arretaz aztertzeakoak ditugu latinezkoa oinarri harturik obratzen dituen hedadurak, anplifikazioak. Testua zabaltzeko prozeduretan egitura bikoitzak eta hirukoitzak erabiltzen ditu maizenik. Isokolonaren enplegu hertsiki honek ondorenak izango ditu adierazkarrien mailan ez ezik baita mamiarenean edo adierazienean ere, baldin eta itzulkizuna berak eskuartean ari duen isokolonaren banaketa sintagmatikoari makurtzen ez bazaio. Bestela esan, egitura irukoitzez ari baldin bada latinez hitz edo aditz bakarra dena hirutan emango du, eta egitura bikoia baldin bada bitan itzuliko digu. Aipatuez gainera badira birresatea dakarten figurak ere, hala nola anforak, paronomasiak, aliterazioak, eta abar. Maisu dugu Axular, bestalde, hizkuntzaren morfologiaz eta sintasiako gaitasun izkutuei eginbide poetikoa ematen. Obraren elkarrizketa taiuak ere zer ikusi handia duke apos-trofo eta inperatiboen erabilkuntzan, hitzunen perpausak zuzen ala zehar bidez ematean, eta gramatikazko pertsonen jokoetan.

Esanak esan eta inoiz autoritatezko aipamena apaingarri hutsa besterik ez bada ere batzuetan itzuli ere gabe uzten digularik, beste zenbaitetan hitzen bati dagozkion burutapen etimologiko eta gramatikaletan ere mugilduko zaigu beraren adiera zehatzaz argiro jabe gaitezen.

Lantxo honetan agertu nahi nukeena itzultzailearen ezin ukatuzko estilo nahia da, eta, gorago adierazi dudanez, beronen erretorika zaletasuna axola handiko eragile bezala hartu beharra itzulpena makurtzen duten beste arrazoiaren artean, eta hauek ukatzeko inolako asmorik gabe, noski.

Lehen hurbilbide bezala *Gero*-ren aurreneko kapituluan datorren honako zatia hartuko dugu; gainerakoak ere haserako heren partean bilduriko eredu batzuk baizik ez dira izango, ez liburu osoan.

“Erran genezake Ebanjelioko aberats hark bezala: *Anima, habes multa bona, posita in annos plurimos, requiesce, comede, bibe, epulare* (Lc. 12). Dezagun ian eta edan; dezagun pausa eta atsegin har; zeren berdin eztugu deusen eskasik, eztugu egun hautan eskean ibiltzeko perilik.”

Mamia aztertzeari ekinez gero bi zati ikusten ditugu jatorrizko pasartearen: baieztapen bat haseran, *habes multa bona, posita in annos plurimos*, eta ondoren lau inperatibok osaturiko multzoa: *requiesce, comede, bibe, epulare*; bigarren atal hau aurrekoari kontsekutibo edo ondorio bezala lotzen zaiolarik isilpeko juntagailu batek erantsia, *ergo* bat adibidez izan litekeenak. Era bereko partiketa ikusten dugu euskarazkoan baina alderantziz emana: inperatiboak (subjuntiboak) lehenik eta ondoren atseginaren zergatikoa *zeren* kausalak lotua. Axularrek *inversio* delakoaz baliaturik pasartearen harreman logikoak irauli dizkigu. Latinezkoan “aberats zara, ezazu atsegin hortaz” esaten zaigu, euskarazkoan berriz “dezagun atsegin har, zeren berdin ez dugu deusen eskasik”. Solaskide entzulea ere bestela ematen zaigu; latinezkoan, bere nortasuna bikoiztuz arimari ari zaio aberatsa, Axularrek berriz pluraleko lehen pertsona darabil beste giro eta kolore bat emanaz hizketari. Litotez ere baliatzen da ezezka emanik latinez alderantziz datorren mezua: “eztugu deusen eskasik, eztugu egun hautan eskean ibiltzeko perilik”. Latinezkoan *habes*

aditzaren osagarri zuzena zerbait on da, *multa bona*, euskaraz aipatzen zaizkigunak ordea ez dira halako gutizigarriak: "eskasia" eta "eskean ibiltzeko perila". Denborarenak ere bestela datoz. Latinezkoaren mugak azken gabe luzatzen dira, *in annos plurimos*, euskaraz berriz denbora hurbilari mugatzen zaio, "egun hautan", kontraesan bikoitza eskainiaz: egunak/urteak, asko/hauek (gutxi, beraz). Latinezkoan batere irudirik ez dugu, Axularrenean berriz "eskean ibiltzea" aipatzen zaigu aurretik datorkigunaren hedadura gisa, deusen eskasik ez izatearen ondoko anplifikazio bezala. Bigarren partean latinez *per incrementum* indartuz doan inperati-bo bilduma dago *climax* bezala *epulare* duelarik: *requiesce, comede, bibe, epulare*. Axularrenean ez dugu honelakorik, eta paralelismo bikoitzaren bidez erabakiko du itzulpena: ian-edan/pausa-atsegin har.

Epulare da inolaz itzuli gabe uzten digun laugarren hitza, latinezkoan bortitzena dena hain zuzen ere. Zergatik hori? Ez ote zuen euskal kiderik aurkitzen? Arrazoa beste zerbaitetan bilatu beharko dugu hitz berbera beste nonbait ederki itzultzen digunez. San Lukasen *induebatur purpura et bysso: et epulabatur quotidie splendide* pasartean ez du horrelako debekurik eta "beztitzen zela ongi eta *othuruntzatzen* hobeki" itzulikatzen digu; horra bada hitzaren ordaina bikain emana. Isiltze hori, beraz, errazago argituko dugu sintagma mailan gertatzen den paralelismo retorikoaz paradigma lexikoan litekeen eskasiaz baino. Eta erretorika ahotan dugunez gero sar gaitezen adierazleen mailan semantikakoak alde batera utzirik.

Zati honetan lehen begiratuaz banaketaren simetria bikoitza ageri zaigu nabarmen. Binako bidez eraiki den egitura hau ez dugu latinezko testuan, eta nolabait aditzera ematekotan honelako zerbait azalduko genuke:

	<i>dezagun A eta B</i>	
I	<i>dezagun A' eta B'</i>	
	
	<i>eztugu</i>	<i>-ik</i>
II	<i>eztugu</i>	<i>... -ik</i>

Lehen multzoa (I), latinezkoan bigarren zetorrena, isokolon osoa dugu atal berdinak baititu bi perpausetan. Silaben kontua ez da berbera, hau ordea axola handikoa ez izateaz gainera aldekotzat ere har dezakegu azken atalak luzatze ontzat ematen baitute erretorika zale jatorrek frenuaren edo galga delakoaren legea eredu hartuz gero. Eta mamiari berriro gagozkiolarik haserako aditzek (ian, edan) ekintza adierazten badute ere sosegu adiera dakarte ondokoek (dezagun pausa eta atsegin har), silaba luzatze hori alderdi semantikoaren lagun gertatuaz. Antzeko zerbait dugu bigarren multzoan (II) ere, latinezko lehenengoari dagokionean, *dispositio*-ren arau berari jarraikiz azken perpausa nasaiki luzatzen duelarik.

Simetria eta paralelismo sen hau zeugmaren erabilkuntzan ere dugu nabarmen. Egitura argia da lehen multzokoa, *Aux*(A, B): laguntzailea ez da partizipio bakoitzaz berraipatzen bikote bakoitzaz baizik. Laguntzaile bakar batez ederki egin zezakeen lau partizipioena (dezagun ian, edan, pausa eta atsegin har), honek ordea paralelismoa puskatuko zukeen zati biak bakar batetara bilduz gero.

Erretorikan diren bestelako eginbideen bila hasita hortxe ditugu paronomasiak (ian, edan, har), bir-anafora (dezagun... eta, dezagun... eta) lehen multzoan, eta anafora soila bigarrenean (eztugu). *-ik* morfema errepikatzea *homeoteleuton* genuke, hitza erabiltzea bidezko balitz ere.

Pasarteak zabaltzeko eta luzatzeko joera hau ez da idazlearen nahiaz kanpo gertatzen den hala beharra; beste edozein zatitan aurkituko ditugu antzeko prozedurak. Datorren eredu honetan adibidez, azken zatia guztiz libreki itzultzen du *b* eta *r* hotsen aliterazioak lortzearen, *behar* hitza oinarri aldakaitz bezala harturik zaharrek *conversio* zeritzaketena izango dugu.

“Bada fintasunaz, bere hitzaren leial, eta iabe izaiteaz, ezta zer erranik. *Respicite filii nationes hominum, et scitote, quia nullus speravit in Domino et confusus est. Quis enim permansit in mandatis eius, et derelictus est? Aut quis invocavit eum et despexit illum?* (Eccli. 2). Beha ezazue munduko ienderazino guztietara, eta edirenen duzue eztela egundaiño, Iauna baithan fidatu denik galdu, eta ez *BERE BEHARREAN, BEHAR DEN BIIDEAN,*

HURA BEHARTU DUENIK, BERE BEHAR DUENA GABE, GELDITU. (85)

Hurrengo honetan trebeki itzulia dugu San Agustinen adierazi eta adierazle joko bihurria, bai muinari dion errespetuagatik bai adierazkarrien mailan aurkitu dizkion kidetasunengatik berdintzen gaitza litzatekeen itzultzaile artezia erakutsiaz:

"Festinare debet ad Deum conver-tendo dum potest unusquisque, ne si dum potest noluerit, omnino cum voluerit, non possit (August. Serm. 17 ad fratres in eremo. Tom. 10). Bat bederak behar du konbertitu eta egin laster Iainkoagana, *ahala duenean*. Zeren *ahala duenean, nahia ez-tuenak*, benturaz gero, *nahi duenean, eztu ahala izanen* (135)

Maisu gailen ageri zaigu similikadentzia hirukoitzak antolatzen *odistis* eta *expulstis* aditzak euskaraz ematera-koan:

"Quid venistis ad me hominem, quem odistis et expulstis a vobis? (Gen. 26). Zertara ethorri zarete orai enegana, lehen *gaitzetsia, alfer-etsia*, eta zeuenganik *egotzia*, erabili duzuen gizon batengana? (142)

Berriro ere hirugarren atala, *eta zeuenganik egotzia*, luzeago eman digu galgaren legea dela eta. Gauza bera egingo du soilagoa den beste adibide honetan, hirugarren ataleko silabak luzatzeaz gainera bokalismoa ere (*e-a* aurrekoetan) disimilatzen duelarik:

"Omnis piger in aegestate est (Prov. 2). Nagia beti da behar, eskas eta errumes." (26)

Nagia beti da

be-har 1 2	es-kas 1 kas	eta e-rru-mes 1 2 3
---------------	-----------------	------------------------

1

2

3

Diogun, haatik, atal luzeenak aurretik dakartzaten pasarteak ere badirela, orain datozen zati bietan ikusiko dugunaren arabera. Hemendik aurrera isokolon batzuk aztertuko ditugu. Lehenengoan egitura paraleloak antolatzeko legea *-aren* eta *-a* similikadentziak izango dira.

"Pigritia est nutrix aegestatis, dio Senekak (Senec. Lib. de benef.). Nagitasuna da nezesitatearen eta probeziaren unhidea eta haz-ama." (26)

nagitasuna da

I-	nezesitatearen	eta probeziaren
II-	unhidea	eta haz-ama
	1	2

Oraingo similikadentziak *-ik* eta *-na* izango dira:

"Vigilate itaque, quia nescitis diem neque horam (Mt. 25). Zaudete prestik eta iratzarririk, zeren eztakizue eguna eta ez orena" (36).

Zaudete	prestik	eta iratzarririk	-I
zeren eztakizue	eguna	eta ez orena	-II

Hurrengoan *-atu* similikadentziaz gainera *onhest* eta *modest* paronomasiak izango ditugu:

"Qui modestus est in senectute, cum aetate plurimum iubetur, non magnam suae modestiae mercedem arbitror habiturum (Chrys. Hom. 50 in cap. 24 Mt. T. 2). Eztut uste presuna zaharrak, probetxu anhitz izanen duela bere zahartzean onhest, modest, pausatu eta sosegatu izaitez." (119)

*Eztut uste presuna zaharrak, probetxu anhitz izanen due-
la bere zahartzean*

I-	<i>onhest</i>	<i>modest</i>	
II-	<i>pauatu</i>	<i>eta sosegatu</i>	<i>izaiteaz</i>

Datorrena egitura hirukoitza izango dugu, Axularrek arrunt erabilia dakigunez. Sintagma hirukoak antolatzeko akabantzak *-tzeaz*, eta *-tzen* izango dira:

“Quod ferrum (utile est), an quod movetur, an quo nemo utitur? Nunc quidem illud splendet ac argento simile est, hoc autem rubigine consumitur. (...) (Chrysos. hom. 35 in Acta Apost. tom. 3). (...) Zein burdina, zokhoan datzana, ala erabiltzen dena? Segur da, guztiak erabiltzeaz, manaiatzeaz eta eskuztatzeaz ontzen, argitzen eta fintzen direla, eta bai alfer eta geldi egoiteaz ere, galtzen, desegiten, eta herdoiltzen.” (23)

Zein burdina, zokhoan datzana, ala erabiltzen dena? Segur da, guztiak

I-	<i>erabiltzeaz</i>	<i>manaiatzeaz</i>	<i>eta eskuztatzeaz</i>
II-	<i>ontzen</i>	<i>argitzen</i>	<i>eta fintzen</i>

**direla,
eta bai alfer eta geldi egoiteaz ere,**

III-	<i>galtzen</i>	<i>desegiten</i>	<i>eta herdoiltzen</i>
------	----------------	------------------	------------------------

Xinahurriaz ari den zati ezaguna eredu jakingarria dugu Axularren eginbideak ikertzerakoan, *vias, sapientiam* eta *cibum* hitzen hedadurak esan nahi handikoak dira bere idaz-

tankera ezagutzeko. Egitura bikoitzak eta hirukoitzak izango ditugu, baina bigarren hauek azkenerako utziko ditu berriro ere frenuaren araua ezarri nahiz. Bestalde, amplifikazio horiek aski libreak direlarik ere ohar gaitezen, hurrengo adibidean ere ikusiko dugun bezalaxe, *considera* adierazlerari dion begirunea, berbera erabilten baitu euskaraz ere: *konsidera* (itzazu).

“Vade ad formicam, o piger, et considera vias ejus, et disce sapientiam quae, cum non habeat ducem nec praeceptorem, parat in aestate cibum sibi (Prov. 6). Zoaz, nagia, xinhaurriarengana, eta *konsidera* itzazu haren bideak eta bidexkak, ioan-ethorriak eta itzul-inguruak, nekeak eta trabailluak, eta ikhasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat eta bethiere bizi, ibili eta gobernatu. Hark erakuslerik eta kidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan, neguaren iragaiteko behar duen mantenua, bazka eta bihia.” (22)

Zoaz nagia xinhaurriarengana eta konsidera itzazu haren



Aurreko eredueta deklinabidea bezala, inperatiboak eta subjuntiboak ere bide egokia dira similikadentziak lortzeko bai partizipio moztuetan bai aditz laguntzaileetan. Trebea da Axular hizkuntzaren morfologiaz eta sintasiaz baliatzen itzulpena eder lan bihurtzeko. Lehengo zatian bezala oraingoan ere espresioaren mailan *converti* eta *konberti* adierazleekin jokatu du: ageri denez Axular, nahi duenean, guztiz lotzen zaio latinezko testuari adierazleak berak ere hartzeraino, beste zenbaitetan aldiz ez digu aipamena itzuliko *ornatus* eta erudiziozko agerbide huts bezala darabilelarik.

"Non tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem (...) (Eccli. 5) Konberti zaitezi, bekhatutarik iltki zaitezi; eta eztezazula berant, eztezazula egunetik egunera luzat. (51)

konberti	ZAITEZI	-I
bekhatutarik iltki	ZAITEZI	
eta eztezazula	BERANT	-II
eztezazula egunetik egunera	LUZAT	

Ondoko subjuntibo jokoa, aurrekoan ez bezala, aho korapilo bihurria gertatzen da zinez:

"Substrahē pedem de domo proximi tui, ne quando satiatus oderit te (Prov. 25). Gibela ezazu zeure oiña adiskidearen etxetik, ez han maiz ibil, ase eztezazun, higuin etzakitzan, eta gaitzets etzaitzan." (27)

ez han maiz ibil

I-	ase	EZTEZAZUN
II-	higuin	ETZAKITZAN
III-	gaitzets	ETZAITZAN

Gero-ren prediku tankera dela eta nahiko erabiltzen da apostrofoa erretorikazko prozedura gisa. Latinezko aipame-
nean baldin badator puztu eta hanpatu egingo du Axularrek,
beste batzuetan ordea, latinezkorik ezean, sartu egingo du
Axularrek itzulpena biziago gerta dakigun. Gauza bera dio-
gun hirugarren pertsonatik bigarrenera pasatzeaz. Era
berean, pasarte koloretsuago bihurtu nahiz anakronismoak
ez dira eragozpena, eta, 315.ean San Agustini pilotariak eta
dantzariak aiparazten dizkion bezala, matatiarrak giristino
bilakatu dizkigu hemen Sarako erretoreak. Pasarte honetan
latinezko aipamena atxakia hutsa da zati guztiz berri bat mol-
datuz apostrofoak, paronomasiak (*izena, izana*), anaforak (*za-
kizkide... zakizkide... zakizkide*), similikadentziak (*le-
gearen, fedearen; mantenatzen, sostengatzen*), eta egitura
paraleloak, kasu hemen silabazkoari, bere gogara antolatze-
ko.

*"Omnis qui habet zelum legis, statuens testa-
mentum exeat post me (2 Mach 2). Ea giristinoak,
girstino izenarekin, izana duzuenak, bertze egiteko
guztiak utzirik hurbil zakizkide, iarraiki zakizki-
date eta egiazko legearen eta fedearen mantena-
tzen eta sostengatzen, lagun zakizkide."* (3)

Ea giristinoak, giristino izenarekin, izana duzuenak, bertze egiteko guztiak utzirik

I-	hurbil	ZAKIZKIDATE					
II-	iarraiki	ZAKIZKIDATE					
	eta egiazko		<i>le-ge-a-ren</i>		<i>eta fe-de-a-ren</i>		
			1 2 3 4		1 2 3 4		
			<i>man-te-na-tzen</i>		<i>eta sos-ten-ga-tzen</i>		
			1 2 3 4		1 2 3 4		
				1		2	
III-	lagun	ZAKIZKIDATE					
			1				2

Aipamen batzuk itzuli gabe uzten dituelarik eta beste batzuk bere kabuz eta askatasun osoaz bihurtzen baditu ere, zenbaitetan oso hestu heltzen dio hitzaren esan nahiari, eta honen ñabardura bat edo etorkia aztertzen geldituko zaigu. Pasarte batetan, adibidez, Zakeok dioena *do* dela argitzen digu, orain aldia galegia, ez *dabo* etorkizuna.

“Etzuen hala egiten Zakeo aberats hark erraiten zuenean: *Ecce dimidium bonorum meorum do pauperibus, et si aliquem defraudavi reddo quadruplum* (Lc. 15). Neure onen erdiak emaiten derauztet probei, eta baldin nehor enganatu badut, bihurtzen dut laur doble. Eztu erraiten *dabo*, emanen dut, ezta geroko mintzo, presentean erraiten du, *do*, emaiten dut.” (166)

Beste batetan denbora joan doala esaten digu, eta lehenbai-lehen ekin behar diogula on egiteari, “*instanter*, fite, presentean”, esaten digu latinezkoa errepikatuz:

“Beraz huneletan: *Quodcumque potest facere manus tua instanter operare. Quia nec opus, nec ratio, nec sapientia, erit apud inferos quo tu prope-ras* (Eccl. 9). Orai, denbora aitzinean duzuiño, egizu ahal dagizuna: eta orai ere, *Instanter*, fite, presentean.” (101)

Aurrerago orobat egiten digu *foeneratur* aditzaz:

“*Foeneratur Domino qui miseretur pauperis* (Prov. 19). Probeari emaiten dioenak, Iainkoari emaiten dio. Eta emaiten ere, nola? *Foeneratur*. Zensuan, interesean, irabazian, obliga arazirik bezala, prinzipala irabaziarekin bihurtuko dioela.” (150)

Guzti hauetan aipamenaren eginbidea, noski, argudio izatea da, berak dioskunaren sostengu eta habe izatea. Azken honetan “damu” latinez *contritio* dela argitzen digu, *conterotik* erakarria, eta honek xehatzea eta porroskatzea adierazten duela:

“Eta barreneko penitentzia haur, bihotzezko damu eta dolore haur (zein latinez deitzen baita *contritio*, a verbo *contero*, erran nahi baitu, xehatzea, zathitzea, porroskatzea.” (133)